

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**Foru Agindua 221/2018 martxoaren 26koa, Arabako toki erakundeetan hurbileko merkataritza eta/edo artisau merkataritza sustatzeko laguntzen deialdia onartzeanartzen duena**

Zerbitzuak eskura edukitzea oinarritzko faktore bat da landa inguruneko biztanle kopuruari eusteko.

Arabako Lurralde Historikoko hainbat udalerrri eta toki erakundetako biztanleak, neurri handi batean, pertsona adintsuak dira eta, askotan, ez daukate beren lehen beharrianak betetzen dituzten erosketa txikiak (janariak eta/edo etxeko gauzak) egiteko dendarik.

Beste alde batetik, gure lurraldeko artisauak ez daukate lokalik beren produktuak jarraituki saldu ahal izateko eta joaten diren azoketan egiten dituzten salmentak osatzeko.

Horrelako denda txikiak martxan jartzeko, askotan, obrak, erreformak eta inbertsioak egin behar dira lokaletan. Obra horien kostua garrantzizko eragozpen bat da, negozio horiek kudeatzeko interesa izan dezaketenei atzera eragiten diena.

Arabako Foru aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak, bere eginkizunen artean, honako hauek ditu: merkataritza eta artisautza arloak sustatzea, eta gure lurraldean diharduten eragileekiko eta erakunde publiko nahiz pribatuekiko lankidetzat bultzatzea.

Premisa horiek oinarri hartuta, eta lurralde oreka garatzearen mesedetan, Arabako Foru Aldundiak aurreikusi du abian jartzea Arabako toki erakundeetan hurbileko merkataritza eta artisau merkataritza sustatzeko laguntzen deialdia. Horrela, helburu bikoitza lortu nahi da: alde batetik, toki horietan hurbileko dendak irekitzea sustatzea, bertako ekonomia eta gizarte jarduera bizkortuz; eta, beste aldetik, merkataritza ekimena abian jartzearen ondorioz lanpostuak sortzen laguntzea.

Arabako Foru Aldundiak, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez, Enplegu, onarpena eman zien Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren eskumenen eremuan emango diren dirulaguntzak arautuko dituzten oinarri orokorre. Araudi hori martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretuaren bidez aldatu da.

Oinarri horiek onartzearen ondorioz, eta ahalik eta zabalkunderik handiena ematearren eta publizitatearen, lehiaren, objektibotasunaren, berdintasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioak betetzeko, laguntzetarako deialdia ezarri behar da, merkataritza sustatzeko ekimen horiek berari lotu beharko baitzaizkio.

Aginduzko txostenak aztertu dira,

Horregatik, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

**XEDATZEN DUT**

Lehenengoa. Arabako toki erakundeetan 2018ko ekitaldian hurbileko merkataritza eta artisau merkataritza sustatzeko laguntzen deialdi publikoa onartzea, gehienez ere 30.000,00 euroko hornidurarekin. Deialdia ebazpen honen eranskinean doa.

Bigarrena. Deialdia honako hauek aintzat harturik arautuko da: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzan lehia araubidean dirulaguntzak emateko aplikagarri diren oinarri orokor arautzaileak (Diputatuen Kontseiluaren 26/2016 Foru Dekretua, martxoaren 15ekoa, ALHAOn 2016ko 38. zenbakian argitaratua, martxoaren 30ean, asteazkena), haren ondorengo aldaketak (martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretua) baita ebazpen honen eranskinean xedatutakoa ere.

Hirugarrena. Honela ordainduko dira foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak:

– Irabazi-asmorik gabeko elkarteei: 10.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2018ko Aurrekontuko 30.5.02.36.01.781.00.01 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105.1311/000).

– Pertsona fisiko eta/edo autonomoei: 20.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2018ko Aurrekontuko 30.5.02.36.01.770.00.01 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105.1312/000).

Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 6ko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2 artikulua betetzeko, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordearen proposamena aintzat hartu ondoren. Horretarako ebazpena emango du, deialdiaren guztirako aurrekontua ezinbestean errespetatuta.

Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Hala ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritik, diputatu nagusiari aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabakia jakinarazi ondorengo egunetik hilabete igaro baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan erabakia jakinarazi ondoko egunetik bi hilabete igaro baino lehen.

Bosgarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta argitaratu ondoko egunetik aurrera izango du indarra.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 26a

*Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
**CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR**

*Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria*  
**JUAN FELIPE GARCÍA MIRAVALLES**

**ERANSKINA****ARABAN 2018AN HURBILEKO MERKATARITZA ETA ARTISAU  
MERKATARITZA SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA****1. artikulua. Xedea**

Deialdi honen helburua da sustatzea edo hobetzea Arabako toki erakundeetan bertoko biztanleak beren oinarrizko beharrianak asetzen dituzten dendak edo bertoko produktu edo artisau produktuak saltzeko dendak sortzea.

**2. artikulua. Aurrekontu partidak**

2.1. Honela ordainduko dira foru agindu honek arautzen dituen dirulaguntzak:

– Irabazi-asmorik gabeko elkarteei: 10.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2018ko Aurrekontuko 30.5.02.36.01.781.00.01 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105.1311/000).

– Pertsona fisiko eta/edo autonomoei: 20.000,00 euro Arabako Foru Aldundiaren 2018ko Aurrekontuko 30.5.02.36.01.770.00.01 partidaren kontura (xedapen erreferentzia: 105.1312/000).

2.2. Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri orokorren 7.2. artikulua betez, saileko diputatu titularrari ahalmena ematen zaio aurrekontuko partida bakoitzari esleitutako funtsak birbanatzeko, Balorazio Batzordeak hala proposatuta. Horretarako, ebazpena emango du, betiere deialdiaren aurrekontu osoa errespetatuz.

2.3. Deialdi honetan zehazten diren aurrekontuko partiden hasierako hornidura aurrekontu transferentzia egokien bitartez gehitu ahal izango da hasierako aurrekontuaren ehuneko 100era arte, baldin eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzaren beste partida batzuetan gerakinik badago.

**3. artikulua. Entitate onuradunak**

3.1. Hauexek izan daitezke erakunde onuradunak, eta laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak eskuratu ahalko dituzte:

– Irabazteko asmorik gabeko elkarteak, Araban dutenak egoitza, beren eginkizunen artean dutenak edo eduki asmo dutenak Arabako lurralde historikoan 1.000 biztanle baino gutxiago dituzten toki erakundeetan elikadurako eta/edo etxerako lehen mailako beharrianetako produktuak eta/edo tokiko produktuak eta/edo artisautzakoak saltzen dituzten saltokiak kudeatzea.

– Aurretik adierazitakoarekin lotura duen merkataritza edo artisautza proiektu bat garatu nahi duten edo garatzen ari diren autonomo edo pertsona fisikoak.

Eskaera pertsona fisiko batek egiten badu, beharrezkoa izango da Gizarte Segurantzako autonomoen erregimenean alta emanda egotea eta dirulaguntza ordaindu aurretik alta horren egiaztatzea.

3.2. Kide bihurtzeko prozesuan edo funtzionamenduan sexu diskriminazioa eragiten duten entitateak ezingo dira izan dirulaguntza hauen onuradun, hala xedatzen baitu Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legearen 24.2 artikulua (otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea).

Era berean, ezin izango dira lehiatu, dagokien zehapenak ezarritako denboran, sexuagatik diskriminazioa eragiteagatik zigor administratibo edo penala jaso duten erakundeak, ez eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Legearen ondorioz debeku horrekin zigortutakoak ere, Euskadiko Ogasuna antolatzen duten printzipioen Legearen testu bategina 50.5 artikuluan jasotzen duen bezalaxe (1/1997 Legegintzako Dekretu azaroaren 11koak onartu zuen testu bategina, betiere artikulua horri Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Eusko Legebiltzarraren Legearen azken xedapenetako seigarrenak emandako idazkeraren arabera; alegia, 4/2005 Legea otsailaren 18koak).

#### 4. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak

4.1. Diruz lagundu ahalko dira proiektuak abian jartzeko edo lehendik ziren saltokiak hobetzeko inolako zalantzarik gabe lagungarriak diren gastuak, beharrezkoak direnak eta ezarritako epean egiten direnak, hala nola:

a) Lokalak aurretik adierazi diren produktuen salmentarako egokitzeko eta eraberritzeko obrak. Diruz laguntzeko diren lanen barruan, egokitze eta eraberritze obrez gainera, horiek gauzatzeko proiektuak sartu ahal izango dira, baita lokalak behar dituen instalazio lagungarriak ere (elektrizitatea, jagoletza, berogailua, etab.).

b) Egiteko den jarduerarekin zerikusia daukaten altzariak, makinak eta merkataritza ekipamendua erostea. Ekipamendu horren barruan, honako hauen erosketa sartu ahal izango da: erakusketarako beira-arak, ordenagailuak, saltokiko terminalak, inprimagailuak, barra-kodeen irakurgailuak eta ordenagailuen beste osagai periferikoak.

4.2. Baimenduta dago diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 100eraino azpikontratutzea, 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 27. artikuluan xedatutako baldintzak betez.

4.3. Erakunde onuradunek jasandako Balio Erantsiaren gaineko Zerga (BEZa) diruz lagundu daitekeela ulertuko da bakarrik, zergetan konpentsatu ezin duten neurrian.

4.4. Ez da diruz lagunduko eskatzailea ez den beste jabe batek lehenago erabilitako ekipoak eta/edo inbertsioak erostea.

4.5. Toki erakundeek kasuan, diruz laguntzekoak izango diren lokalak eta ekipamenduak beraienak izango dira. Dena den, laga egin dakizkieke ezartzen den aldirako eta erregimenean haien ardura artu nahi duten sustatzaileei.

#### 5. artikulua. Aplikazio eremua eta jarduerak gauzatzeko epea

Deialdi honen onuradun diren erakundeek lanak garatu/egin eta/edo inbertsioak egin behar dituzte 2018ko urtarrilaren 1etik 2018ko azaroaren 30era bitartean.

#### 6. artikulua. Dirulaguntzen zenbatekoak eta mugak

6.1. Diruz lagundu daitekeen aurrekontuari aplikatzeko zaion dirulaguntza ehunekoa ehuneko 90 izango da.

6.2. Hona dirulaguntzaren gehieneko mugak:

- 5.000,00 euro, irabazi-asmorik gabeko elkarteen kasuan.
- 8.000,00 euro, autonomo edo persona fisikoen kasuan.

Eskaera bat dirulaguntza jasotzeko modukoa izan dadin, dirulaguntzaren gutzirako zenbatekoa gutxienez ere 500,00 euro izango da.

6.4. Baldin eta 6.1 eta 6.2 ataletako mugak aplikatu ostean aurrekontu gerakina badago, muga horiek gainditu ahalko dira, gerakina hasieran gastu mota bakoitzari adjudikatutako dirulaguntzarekiko proportzioan adjudikatuz.

#### 7. artikulua. Dirulaguntzen bateragarritasuna

7.1. Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuak, oinarri orokorrak onartzen dituenak, hamahirugarren oinarrian ezarritakoa aplikatuko da. Gainera, jarduketek jaso ditzaketen beste laguntzak, edozein izanda ere laguntza mota eta hura ematen duen organoa edo administrazioa, bateragarriak izango dira erabaki honetako laguntzekin, baldin eta, bai osotara bai diruz lagundutako jarduera bakoitzean, laguntzen baturak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren kostua.

7.2. Dirulaguntza eskaera aurkeztu eta gero beste laguntzaren bat lortzen bada, ahalik eta lasterren horren berri eman beharko zaio, idatziz, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritzari, zeinak eskatutako laguntza ukatzea proposa dezakeen.

7.3. Dirulaguntza eskatzen duen erakundeak aurretik beste bat jaso baldin badu helburu bererako, hala adierazi beharko du eskaeran.

#### **8. artikulua. Prozedura bideratzeko organo eskudunak**

8.1. Prozedura Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak bideratuko du.

8.2. Balorazio Batzordea honela eratuta egongo da:

– Batzordeburua: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren zuzendaria edo berak eskuordetzen duen pertsona.

– Batzordekidea: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko burua edo berak eskuordetzen duen pertsona.

– Idazkaria: Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuko teknikaria.

#### **9. artikulua. Eskaerak aurkezteko epea eta modua**

9.1. Eskaerak Arabako Foru Aldundiko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira (Probintzia Plaza, 5 - 01001, Gasteiz), edo itundutako udalen erregistro orokorretan, eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuari zuzendu behar zaizkio (Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zuzendaritza); edonola ere, urriaren 1eko 39/2015 Legean ezarritakoa bete beharko da.

9.2. Eskaerak aurkezteko 30 egun naturaleko epea egongo da, deialdia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

9.3. Ebazpen honetan araututako laguntzak eskuratzeko eskaerekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

– Laguntzen deialdian sartzeko eskaera.

– Paragrafo hauek jasoko dituen adierazpena:

– Erakunde eskatzaileak bere burua behartzen duela eskaera egiazkoa den baieztatzeko behar diren egiaztagiria guztiak aurkeztera, eta Arabako Foru Aldundiak eskatzen dizkion argibide osagarriak ematera.

– Erakunde eskatzaileak ez duela urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzenak, ezarritako debekuetako batik.

– Baimena ematen diola Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailari kasuan kasuko administrazioari zerga izaerako datuei eta Gizarte Segurantzarekiko egoerari buruzko informazioa eskatzeko, laguntzak emateko arauetan eskatutako baldintzei dagokienez (autonomoak edo pertsona fisikoak baino ez).

– Dirulaguntzaren xede diren jardunen azalpena, eta jardun horiek egiteko arrazoiak; eta jardun bakoitzaren aurrekontu banakatua.

– Lana egingo duen enpresaren eskaintzaren fotokopia.

– Ondasuna eman aurretik eskatutako hiru eskaintzen fotokopia, baldin eta lanek kontratu txikietarako ezarritako mugak gainditzen badituzte (40.000,00 euro obretarako eta 15.000,00 euro gainerakoetarako); eta zein eskaintza aukeratu den eta hautaketa horretarako arrazoiak azaltzen dituen agiria.

– Pertsona fisikoak edo autonomoak direnean, NANA eta curriculum vitae ere aurkeztu behar da.

**10. artikulua. Proiektuak hautatzeko eta balioztatzeko irizpideak**

10.1. Aurkeztutako jarduerak, oro har, ondoren adierazten diren irizpide eta puntuazioen arabera balioetsiko dira:

1. Denda kokatzen edo kokatuko den toki erakundetik merkataritza eskaintza zabala duen herri-gune hurbilenerako (Gasteiz, Laudio, Amurrio, Logroño, Miranda Ebro) distantzia: (30 puntu).

40 km baino gehiago	30
25 – 40 km	20
10 – 25 km	10
10 km baino gutxiago	5

2. Aurkeztutako eskaeraren definizio eta kalitate maila eta edukia, eta hura aztertzeko beharrezkoak diren agiri guztiak hasieratik bertatik aurkeztu izana (gehienez ere 30 puntu).

Maila altua	30
Ertaina-altua	25
Ertaina	20
Ertaina-baxua	15
Baxua	10

3. Merkataritza lokala kokatzen edo kokatuko den toki erakundeko biztanle kopurua (20 puntu).

1.000 – 750 biztanle	20
750 – 500 biztanle	15
500 biztanle baino gutxiago	10

4. Merkataritza proiektuaren balorazioa eta, hala badagokio, sustatzailearen gaitasuna eta esperientzia (hazteko ahalmena, enplegua sortzea, bideragarritasun azterlana dagoen eta abar) (20 puntu).

Oso altua	20
Altua	15
Ertaina	10
Baxua	5

10.2. Erakunde onduradunak zehazteko eta haien arteko hautaketa egiteko, eta bakoitzari emango zaion dirulaguntza zenbatekoa izango den zehazteko, Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan zehaztutakoari jarraituko zaio.

10.3. Aurkeztutako eskaeran Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren ustez proiektua garatzeko premia-koak ez diren gastu partidarik balego, partida horiek kanpoan geratu litezke esleituko den dirulaguntza kalkulatzeko. Era berean, erakunde onduradunak 6.2 idatz zatian ezarri den diruz lagundu daitekeen gehieneko aurrekontua agortzen badu, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak zehaztuko du zein diren diruz lagunduko diren gastuak.

**11. artikulua. Ebazteko eta jakinarazteko epea**

11.1. Organo eskudunak, Balioespen Batzordearen proposamenez, bidezkoa deritzon ebazpena onartuko du. Ebazteko epea Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera arautuko da.

11.2. Ebazpenak gutun ziurtatuaren bidez jakinaraziko dira. Edonola ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, ezarritakoari jarraituz jardungo da.

11.3 Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Hala ere, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio prozedura erkidearenak, 123. artikuluan xedatzen duenarekin bat etorritz, Foru Gobernu Kontseiluari aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio erabakia jakinarazi ondoko egunetik hilabete pasatu baino lehen, edo, bestela, zuzenean aurkatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan erabakia jakinarazi ondoko egunetik bi hilabete pasatu baino lehen.

**12. artikulua. Erakunde onuradunen betebeharrak**

Dirulaguntzaren xedarekin zerikusia duten komunikazio, publizitate eta zabalkunde ekintza guztiak, baita edozein ekitaldi publiko nahiz pribaturen, aurkezpen edo amaiera ekitaldien eta antzekoen antolaketa ere, alde aurretik Arabako Foru Aldundiarekin adostu beharko dira, bere irudi korporatiboaren inguruan berak ezartzen dituen jarraibideei jarraituko zaie, eta bi hizkuntza ofizialak erabiliko dira, herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea modu eraginkorrean bermatuz.

**13. artikulua. Dirulaguntzen justifikazioa eta ordainketa**

13.1. Arabako Foru Aldundiak dirulaguntza ordaindu beharra onartuko du, eskatzaileak ondorengo agiriak aurkezten baditu 2018ko azaroaren 30a baino lehen:

- Jardunak egitea arrazoitzen duen amaierako memoria.
- Justifikazio fakturen zerrenda, hauexek adieraziz: hartzekoduna, zenbatekoa, jaulkitze epea eta, hala badagokio, ordainketa eguna.
- Aitorpena, aurkeztu diren justifikazio fakturek bestelako laguntzarik edo dirulaguntzarik izan duten adierazten duena.
- Justifikazio fakturak (jatorrizkoak zein kopia konpultsatuak).

Baldin gasturen baten zenbatekoa kontratu txikietarako ezarritako zenbatekoa adinako edo handiagoa bada (40.000,00 euro obretan edo 15.000,00 euro gainerakoetan), honako hauek aurkeztu beharko dira, hautaketaren justifikazioaz gainera, baldin eta hautatutako eskaintza ez bada onena ekonomia aldetik: hiru eskaintza eta, hautatutako eskaintza onuragarriena ez bada, justifikazio txostena, ez bazen aurkeztu eskaera egiteko unean eta, geroago, gastu erreala kontratu txikietarako ezarritako mugara iritsi bada edo hura gainditu badu.

Onartutako gastu osoaren mugarekin, aldaketak onartu ahal dira hasieran dirulaguntza jasotako jardueretan edo gastuetan eta haiei dagozkien zenbatekoetan, haietakoren bat gauzatu ez balitz ere. Aldaketa horiek Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuaren oniritzia izan behar dute, funtsezko aldaketetan izan ezik, horiek zuzendaritzak onartu behar baititu.

6.2 idatz zatian ezarritako mugaren bat aplikatu bada, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak txostena egin ondoren, murrizketak onartu ahal izango dira diruz lagundu daitezkeen gastuetan, esleitutako dirulaguntzak aldatu gabe. Horretarako, dirulaguntzaren xedea bete behar da eta murrizketa horrek justifikatzekoak diren gastu subentzionarioen gutxieneko zenbatekoa bete behar du. Honela aterako da gutxieneko hori: emandako dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa aplikatutako dirulaguntza ehunekoaren artean zatituta.

Profesionalek luzatutako fakturen kasuan, onuradunak pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kontura egin behar diren atxikipenen zenbatekoa ordaindu beharko du. Kasu horretan, onartu egingo da justifikatu beharreko ordainketa egiteko betebeharra, eta Arabako Foru Aldundiaren ardura izango da ordainketa horiek egiaztatzea eta dagokion justifikazio txostena egitea. Baldin eta egiaztatzen bada ez direla sartu egin beharreko atxikipenak, eskatuko da dirulaguntza itzultzeko eta hari dagozkion interesak ordaintzeko.

Arabako Foru Aldundiak aurretik onartutako ordainketa egingo du onuradunak 2019ko apirilaren 5a baino lehen honako agiriak aurkeztu ondoren:

– Aurkeztutako fakturak ordaindu izana frogatzen duten agiriak (banketxearen zigilua duten banku transferentziak edo P kontabilitate agiriak, toki erakundeak direnean).

– Autonomoen araubidean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria (pertsona fisikoak edo autonomoak direnean baino ez).

Nolanahi ere, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Zerbitzuak aukeran izango du beste dokumentu batzuk ere eskatzeko, egokia baderitzo memorian aipatzen dena egiaztatzeko.

13.2. Toki erakundeek kasuan, dirulaguntzaren zenbatekoaren aurrerapen bat egin ahal izango da, onuradunak idatziz eskatu eta justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainketa betebeharra onartua izateko eskatzen den agiriak aurkezten baditu. Hala egiten denean, udal onuradunak aurkezteke dituen ordainketa justifikazioak 2019ko apirilaren 5a baino lehen aurkeztu beharko ditu.

Justifikatzen ez bada, aurreratutako dirulaguntza itzuli beharko da, dagozkion berandutze interesekin batera.

#### **14. artikulua. Garapena**

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuari ahalmena ematen zaio foru ebazpen hau zuzen garatzeko, aplikatzeko eta interpretatzeko beharrezko den xedapen oro onar dezan.

#### **15. artikulua. Azken klausula**

Foru agindu honetan ezarritako prozedura Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 26/2016 Foru Dekretuaren bidez onartutako oinarri arautzaile orokorretan eta haren ondorengo aldaketetan (martxoaren 28ko 19/2017 Foru Dekretua) ezarritakoaren mendean dago, bai eta honako hauek dirulaguntzei buruz xedatzen dutenaren mendean ere: urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntza eta transferentziena; azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, dirulaguntzena, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, dirulaguntzenaren, araudia onartzen duena, baita dirulaguntzei buruzko geroko xedapen guztiak ere.